

SAILBURUA  
LA CONSEJERA**AGINDUA, 2019KO MAIATZAREN 28KOA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, HONAKO HAU ALDATZEN DUENA: 2018KO URRIAREN 16KO AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA GARBIALDI SA ENPRESAKO LANGILEEK GIPUZKOAKO ADINGABEEN ZENTROAN ETA ERAIKIN ETA LOKAL JUDIZIALETAN GIZARTEARI EMATEN DIZKIOTEN EZINBESTEKO ZERBITZUAK BETE EGINGO DIRELA.**

2018ko urriaren 16an, Garbialdi SA enpresako langileek Gipuzkoako adingabeen zentroan eta eraikin eta lokal judizialetan gizarteari ematen dizkioten ezinbesteko zerbitzuak beteko direla bermatzeko agindua ezarri zen, ELA, UGT, ESK eta LAB erakunde sindikalek aurkeztutako greba-deialdiarekin lotuta (deialdi mugagabea egin zen 2018ko urriaren 17tik aurrera), deialdiaren egileek adierazi bezala, ez dagoelako akordiorik Gipuzkoako eraikin eta lokal judizialetan lan egiten ari diren langileen eta enpresaren arteko hitzarmenean gauzatzen ari diren negoziatioetan, enpresak akordio bat onar dezan, hitzarmen honetako langileak arautzeko eta hainbat alderdi aurreikusteko (besteak beste, soldata-hobekuntzak, kontratazioko hobekuntzak, hitzarmena ez aplikatzeko adostutako klausulak eta abar).

Eusko Jaurlaritzak Garbialdi SA enpresa kontratatu du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ibaiondo Adingabeen Zentroan eta eraikin eta lokal judizialetan garbiketa-zerbitzua emateko.

Deialdi honen aurretik beste bi greba-deialdi egin ziren, 2018ko irailaren 19tik urriaren 3ra eta 2018ko urriaren 4tik 16ra, eta horien zioz ezarri ziren 2018ko irailaren 17ko Agindua eta 2018ko urriaren 2ko Agindua.

Eraikin judizialetako baldintzen zioz sortu ziren kexen eta salaketen ondorioz bilera bat egin zen 2018ko abenduaren 19an Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan, eta bertan, akordio bat lortu zen, 2018ko urriaren 16ko Aginduan ezarritakoaren harira sortu ziren gatazkak ebazteko.

2018ko urriaren 16ko Aginduko xedapenen bigarren puntuan ezartzen da finkatutako gutxieneko zerbitzuak aldatu ahal izango direla grebaren iraupenagatik edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo bat-bateko ezohiko arrazoiak direla-eta, administrazio-izapide egokiak bete ondoren.

Hainbat kexa eta salaketa aurkeztu zirenez, Gipuzkoako Lan Ikuskaritzak grebaren eraginpeko lokalak ikuskatu zituen, eta haien ondorioz egindako txostenean azaltzen zen bisitatutako lan-zentro batzuk osasungaitzak zirela. Hori dela eta, 2019ko otsailaren 4ko Agindua eman zen; agindu horren bidez, hain zuzen, 2018ko urriaren 16ko Aginduan ezarri ziren gutxieneko zerbitzuak mantendu ziren eta aparteko garbiketa egiteko agindu zen.



2019ko otsailaren 4ko Agindu horren aurkako errekurtsua aurkeztu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan: 112/2019 administrazioarekiko auzi-errekurtsua abiarazi zen pertsonen oinarritzko eskubideen jurisdikzio-babeserako prozedura berezian. Errekurtsu hori 2019ko maiatzaren 8ko 235/2019 Epaiak ebatzi du: errekurtsua ezetsi du eta adierazi du aurkaratutako agindua zuzenbidearekin bat datorrela.

Otsailean egin zen aparteko garbiketaren ondoren, Gipuzkoako Lan Ikuskaritzak ikuskapen gehiago egin ditu grebaren eragina izan zuten zentro guztietan. Zehazki, honako eraikin judizial hauek bisitatu dira: Atotxakoa (Kalkutako Teresa plaza 1, Donostia), San Martingoa (San Martin 41, Donostia) eta Bergarakoa (Ariznoa plaza, zk.g.). Bisita horien gainean txostena egin zen, maiatzaren 22an, eta espedientean dago jasota.

Azken txosten horretan, bada, gorabehera hauek jasotzen dira:

*- Lohiz betetako edukiontziak eta zabor-poltsak daude igarotzeko eremuetan eta langileak egoteko guneetan, hondakin organikoak pilatu baitira (vending postuetako elikagaiak eta hondakinak, freskagarrien latak eta kafe-edalontziak esaterako).*

*Hondakin horiek 100/120 litroko edukiera duten poltsetan sartu dira eta eraikinetako gune mugatuetan pilatu dira; gehienetan, gainera, sarbide publikoko espazioetan pilatu dira, eta puntu batzuetan dimentsio handia hartu dute. Horri lotuta, egoera bereziki zaila da Bergarako epaitegietako eraikinean, greba hasi zenetik gutxieneko zerbitzua egiteko beste langile soilik ibili baita garbitzen.*

*Gaur egun, soilik kentzen da vending postuetatik hurbil dauden edukiontzietan, komun publikoetan eta genero-indarkeriari lotutako epaitegietan pilatzen den zaborra. Ez dira kentzen beste gune batzuetako edukiontzietan pilatutako hondakinak, eta batzuetan hondakinen hondarrak ere pilatzen dira horietan (vending postuetako elikagaiak eta hondakinak, enpresak eta greba deitu zuten sindikatuek 2018ko abenduaren 19an egin zuten akordioaren ondorioz berariaz horiek botatzeko jarri ziren edukiontzi hermetikoetara botatzen ez direnak). Beraz, pilatutako poltsetan materia organikoa eta ez-organikoa nahasten dira, eta, ondorioz, Atotxa eta Bergarako eraikin judizial batzuetatik igarotzean kiratsa usaintzen da eta intsektuak ikusten dira.*

Txosten horren arabera, Gipuzkoako eraikin eta lokal judizialen egoerak, pertsona ugari barne hartzen dituenak (bai langileak, bai erabiltzaileak), okerrera egin du 251 egunera (iazko irailaren 19tik) eta 114 egunera (aparteko garbiketa egitea adostu zenetik) luzatu den grebaren ostean; arrisku higieniko sanitarioa areagotu egin da. Halaber, hutsuneak antzeman dira alderdiek gutxieneko zerbitzuei buruz 2018ko abenduaren 19an sinatutako akordioaren betearazpenean, ez baitira jaso materia organikoz kutsatuta egon daitezkeen edozein motatako hondakinak, nahiz eta hori adostu zen berariaz, eta halaxe jaso zen aktan. Hori guztia dela eta, beharrezkoa da 2018ko urriaren 16ko Agindua aldatzea, eta aparteko garbiketa-zerbitzua eskatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko lokal eta eraikin judizialetan.



Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Dekretu Legearen 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharriazko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernu-agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartzezko neurriak har ditzake».

Apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren (Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du) 3.1. artikulua Lan eta Justiziako sailburuari aitortzen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubidea baliatzen dutenean autonomia-erkidegoko ezinbesteko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko beharrezko diren neurriak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, honako hau

#### EBAZTEN DU:

**LEHENA.** - GARBIALDI SA enpresak, Gipuzkoako eraikin eta lokal judizialeko eta lurralde horretako adingabeen zentroko garbiketa-zerbitzuaren esleipenduna denak, aparteko garbiketa-zerbitzua egingo du (pilatutako hondakinak jaso eta eramango ditu, eta, ondoren, gunea garbituko) Bergarako Justizia Jauregian (Ariznoa plaza, zk.g.), San Martingo Justizia Jauregian (San Martin 41, Donostia) eta Atotxako eraikin judizialean (Kalkutako Teresa plaza 1, Donostia).

Aparteko garbiketa horretan, nolahi ere, honako zeregin hauek sartuko dira: instalazio guztien (bainugelak, eskailerak, korridoreak, bilera-gelak, bulegoak eta abar) garbiketa eta desinfekzioa, eta era guztietako hondakinen bilketa, bai materia organikoena, bai ez organikoena.

Aparteko garbiketa-zerbitzu hori berehala egingo da, beharrezkoa den denboran, amaitu arte, eta zeregin hori betetzeko beharrezkoa den enpresako langile-hornidura erabiliko da horretarako.

**BIGARRENA.** - 2018ko urriaren 16ko Aginduan ezarritako gutxieneko zerbitzuak bete egingo dira, alderdiek 2018ko abenduaren 19an izandako bileran adostutako akordioan jasotako zehaztapenekin.

**HIRUGARRENA.** - Azaldutakoaren ondorioz, agindu hau indarrean jarriko da jakinarazten den unean, eta orduan izango ditu ondoreak.





**LAUGARRENA.-** Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean (uztailaren 13ko 29/1998 Legean) xedatutakoaren arabera.

Halaber, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 123. eta 124. artikuluetan xedatuari jarraikiz, jakinarazi egingo da agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daitekeela, lan-agintaritzan, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 28a



**MARIA JESÚS CARMÉN SAN JOSÉ LÓPEZ**  
DEPARTAMENTO DE LENGUA  
**LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA**